2005

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

n.º 16

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## Bisitari atzerritarrak Euskadin
## FRONTUR 2004

## Los visitantes extranjeros en el País Vasco
## FRONTUR 2004

MERKATUAREN AZTERKETA — ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arazola.

Azterketa Turistikoen Institutuak landutako Mugetako *Mugimendu Turistikoak* (FRONTUR) proiektuaren estatistika jarraituaren Euskal Autonomia Erkidegorako berariazko ustiapena aurten ere burutu da. Hain zuzen ere, bilduma honetan ustiapen horren emaitza aurkezten da, seigarren urtez jarraian.

*Por sexto año consecutivo se presentan en esta colección los resultados para el año 2004 obtenidos de la explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la estadística continua de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) elaborada por el Instituto de Estudios Turísticos.*

## FRONTUR operazioa

## *La operación FRONTUR*

Txosten honetan bildutako informazioa 2004. urteari dagokio, eta azken 6 urteetako (1998-2003) informazioari eransten zaio. Hain zuzen ere, Euskadi jomugan duten atzerritarren eskari turistikoaren jokaera zehazten duten oinarrizko egiturazko ezaugarrien berri zehatza ematen digu informazio horrek guztiak.

Aurten ere gure eskerrik beroena adierazi behar diogu Azterketa Turistikoen Institutuari, Institutuak berak eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako Lankidetza Hitzarmenaren barruan eskaini duen laguntzagatik. Horri esker, nazio mailan turismoaren alorrean dagoen estatistika sendoenetariko baten oinarrizko fitxategiak aztertzeko aukera izan dugu.

*La información contenida en este informe relativa al año 2004 se viene a sumar a la ya disponible de los últimos 6 años (de 1998 a 2003) para dibujar una imagen precisa de los rasgos estructurales básicos que definen el comportamiento de la demanda turística extranjera con destino al País Vasco al margen de la coyuntura concreta de un año.*

*Es necesario agradecer un año más la colaboración prestada por el Instituto de Estudios Turísticos en el marco del Convenio de Colaboración suscrito entre el propio Instituto y el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en virtud del cual ha sido posible acceder a los ficheros de base de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*



**Fitxa teknikoa:**

Espainiara hilero-hilero mugak zeharkatuz iristen diren fluxu turistikoak neurtzeko oinarrizko iturri ofiziala da FRONTURen estatistika. Estatistika hori etengabea da, eta 2001 – 2004 Estatistika Plan Nazionalean barne hartua dago, 348. zenbakiarekin. Argitalpen honetan aurkezten diren taulak egiteko erabili den informazioa bidaiariei egindako inkestetatik atera da. Euskadi bisitatu zuten bidaiariei egin zitzaizkien inkesta horiek, Espainiara aireportuz eta errepidez sartzean. Horretarako, 2004. urtean egindako ia 13.000 inkestaren emaitzak bildu dira.

***Ficha técnica:***

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan a España mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 2001-2004 con el N.º 348.*
*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de las encuestas realizadas a los viajeros en las entradas a España que visitaron el País Vasco por aeropuerto y carretera. Para ello se han integrado los resultados de casi 13.000 encuestas obtenidas durante el año 2004.*

## Atzerrian bizi eta EAE aukeratu duten bisitarien tipologia

## *Tipología de visitantes residentes en el extranjero con destino en el País Vasco*

EAE aukeratu duten bisitari-motak. 2001-2004 urteen arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Evolución anual 2001 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2004. urtean, atzerrian bizi diren 8,1 milioi bisitari erregistratu dira Euskadin, % 4 inguru gehiago 2003. urtearen aldean. Horietatik 7,2 txangozaleak dira, bisitatutako jomugan gaua ematen ez duten bidaiariak alegia. Gainerakoak (878.000) turistak dira, eta Euskadin gaualdi bat egin zuten gutxienez bidaia egiterakoan.

Oro har, azken urtean 300.000 atzerritar gehiago iritsi dira Euskadira 2003. urtean baino, txangozaletasunak gorakada izan duelako bereziki. Izan ere, txangozale-ehunekoa % 6,9 hazi da urte batetik bestera, eta une honetan bisitari guztien % 89,1 da txangozalea. Argi dago, beraz, txangozaletasunaren fenomenoak gorakada nabarmena izan duela azken urteetan, 2004. urteko igoera 2003koa baino txikiagoa izan bada ere. Aitzitik, turisten sarrerari dagozkion datuek 2003. urtera arte goranzko joera hori (txangozaletasunari dagokiona baino txikiagoa betiere) adierazten bazuten ere, 2004. urtean joera hori aldatu da, eta beherakada arina nabari da. Nabarmentzekoa da, beraz, Euskadiren eskari turistikoa globalean txangozaletasuna dela nagusi. Horren haritik, esan beharra dago Ipar Euskal Herriarekin estu loturik dagoela turismo mota hori. Eskari turistikoak erakusten digun joera hori bermatu izanak erronka baten aurrean jartzen gaitu: gaualdia egiten duten bisitarien parte-hartzea handitu beharra dago atzerritarren sarreren artean.

*Durante 2004 se han registrado en el País Vasco 8,1 millones de visitantes con residencia en el extranjero, representando un crecimiento cercano al 4% en relación con el año 2003. De este total, 7,2 millones corresponden a excursionistas, viajeros que no pernoctan en el destino visitado, y 878.000 a turistas, viajeros que realizaron al menos una pernoctación en el País Vasco.*

*En términos absolutos, el flujo de visitantes extranjeros el último año ha experimentado un aumento de 300.000 personas respecto a 2003, que se debe exclusivamente a la variación positiva del excursionismo. En efecto, el crecimiento del número de excursionistas alcanza el 6,9% en términos interanuales, representando el 89,1% del total de visitantes. Se observa que el fenómeno del excursionismo presenta una tendencia netamente creciente en estos últimos años, si bien en 2004 el incremento es de menos cuantía que el alcanzado en 2003. Por el contrario, la serie correspondiente a la entrada de turistas, que hasta 2003 respondía a una línea de crecimiento (aunque más pausado que el del excursionista), invierte su tendencia en 2004, con un leve descenso. El predominio del excursionismo en la demanda turística global del País Vasco es el rasgo más significativo de éste, revelando sobre todo un alto grado de interpenetración con el vecino País Vasco-Francés. La consolidación de este efecto que muestra la estadística turística, hace plantearse la asunción de un reto, que no es otro sino aumentar la participación de los visitantes con pernoctación en el conjunto de entradas de extranjeros.*

EAE aukeratu duten bisitari-motak. Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa alderatua 2001-2004
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2001 – 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadin eta espainiar Estatuan erregistratutako atzerriko eskari turistikoaren egiturak oso bestelakoak dira. Izan ere, Espainian turismoak alde handia ateratzen dio txangozaletasunari, eta azken hori atzerriko bisitarien % 40ra ere ez da iristen (hala ere, esan beharra dago goranzko joera txikia nabari dela azkenaldi honetan).

Bi egiturek bere horretan iraun dute azken urteetan, eta gertatu diren aldaketa txikietan egoeraren araberako arrazoiek zerikusi handiagoa izan dute arrazoi sakonek baino. Joera hori aintzat hartuta, argi dago aldaketa bat eragitea zeregin zaila izango dela, eta hortik dator zeregin horri erronka deitu izana.

*La estructura de la demanda turística extranjera que se registra en el País Vasco es diametralmente opuesta a la del Estado español, en el que predomina claramente el turismo sobre el excursionismo, no llegando a alcanzar éste, en ningún caso el 40% de la afluencia de visitantes extranjeros (aunque se observa una ligera tendencia creciente).*

*Ambas estructuras muestran una persistencia notoria en los últimos años, en ligeras variaciones que obedecen más a aspectos coyunturales que de fondo. A tenor de este comportamiento, la dificultad de provocar un cambio es patente, de ahí el calificativo de reto.*





2004an Euskadi aukeratu duten turistei dagokienez oro har nabari den joera-aldaketa ez da mantentzen garraiobideari begiratzen badiogu. Errepidea erabili dutenen kopurua txikiagoa izan da 2004. urtean 2003an baino, azken urte horretako joerari eutsiz. Aireportua aukeratu dutenen kopuruak, aldiz, goranzko joera izan du bi urte horietan. Dena dela, esan beharra dago, bi urteen arteko aldeak ez direla oso handiak.

Euskadi bisitatzen duten txangozale ia guztiek errepidea erabili dute, eta oso alde txikia nabari da garraiobide horrek urte batzuetan eta besteetan izan duen garrantziari dagokionez. Aitzitik, horrelako bisitarien artean bakanak dira hegazkina hartzen dutenak.

Bisitari guztiak aintzat hartuz gero, zalantzarik gabe errepidea da Euskadira bertaratzeko sarbide nagusia, % 3,6k baino ez baitu aireportua erabiltzen. Turisten artean, aldiz, ehuneko hori handiagoa da: % 31,9. Argi dago, beraz, Euskadi aukeratzen dutenen gehiengoak errepidea baliatzen duela, eta horrek berriz ere agerian uzten du Euskadirako bisitak bereziki gertuko merkatuan oinarritzen direla, bai eta distantzia ertain eta luzeko merkatuek oraindik ere presentzia txikia dutela ere .

*La inversión de tendencia que se aprecia en la entrada global de turistas al País Vasco en 2004, no se mantiene cuando se distingue por vías de acceso. La participación del modo carretera disminuye en 2004 frente a 2003, lo mismo que lo hizo este año en relación con el anterior. Mientras que la correspondiente a aeropuerto conserva variaciones crecientes en ambos años. Pero las diferencias de unos años con otros mueven en valores muy moderados.*

*Los excursionistas visitan el País Vasco casi exclusivamente por carretera, con pocas oscilaciones de la importancia de esta vía entre unos años y otros. La utilización de la vía aérea por este tipo de visitantes es puramente testimonial.*

*En el conjunto de visitantes, la carretera es con mucho la vía preferente de acceso; sólo el 3,6% utiliza el aeropuerto. Entre los turistas, la vía aérea es utilizada en el 31,9% de los casos. Este predominio de entradas por vía terrestre, vuelve a confirmar que las visitas al País Vasco tienen básicamente un mercado de proximidad, con poca representatividad de los mercados de media y larga distancia.*

EAE aukeratu duten bisitari-motak, erabilitako garraio-motaren arabera. 2001-2004 urte arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2001 - 2004*




**Iturria/Fuente:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

# EAE aukeratu duten turistak

# *Turistas con destino en el País Vasco*

2004. urtean turista kopuruak behera egin du 2003. urtearen aldean, eta beherakada hori ez da oso handia izan (23.000 turista gutxiago), baina 2002ko mailara eraman gaitu. Bereziki errepide bidezko turista kopurua nabarmen jaitsi delako (% 10) gertatu da beherakada hori. Aire bidezko turista kopuruak, aldiz, gora egin du, eta azken urte hauetako gorenera iritsi da.

Urteko bisita turistikoek izan duten hileko bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 2004ko lehen zortzi hiletan nabari dela gehien beherakada hori aurreko urtearen aldean. Hala, abuztura arteko hilabete guztietan 2004ko kopuruak 2003koak baino txikiagoak izan dira, ekainean izan ezik. Joera hori bereziki deigarria da abuztuari dagokionez. Kontuan hartzekoa da opor-turismoaren bi hilabete nagusietan (uztailean eta abuztuan) turista kopuruak behera egin duela 2003aren aldean, eta 2003. urtean ere gauza bera gertatu zela 2002rekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2002. urtean 180.000 turistak aukeratu zuten Euskadi abuztuan. 2004an, aldiz, 140.000 turistak.

*En 2004 se produce un descenso en el número de turistas respecto a 2003; no es muy acusado (apenas 23.000 menos), aunque lo sitúa en los niveles de 2002. Este movimiento a la baja se debe sobre todo a un decremento notable de los turistas por carretera que alcanza el 10%, mientras que los turistas por vía aérea se incrementan hasta un total que significa el máximo de la serie.*

*De la evolución mensual de las visitas turísticas a lo largo del año, cabe destacar que son los ocho primeros meses de 2004 los que configuran la caída global de este año respecto al anterior. Así, hasta agosto todas las cifras de 2004 son inferiores mes a mes a las del 2003, con la sola excepción de junio. Este efecto es especialmente llamativo en el mes de agosto. Se da la circunstancia que los dos meses típicos del turismo vacacional, julio y agosto, presentan en 2004 descensos sobre 2003, lo mismo que este último frente a 2002. En dos años, de 2002 a 2004, el número de turistas en agosto al País Vasco ha bajado de 180.000 a 140.000.*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*



Euskadiko turismo-eskaria argi eta garbi urte-sasoikoa da, aisia- eta opor-motibazioei erantzuten dielako bereziki. Hala, uztailean eta abuztuan (maximo absolutua) izaten dira bisita gehien, bai eta abenduan (maximo erlatiboa) ere, neurri txikiagoan bada ere (ekainaren parean). 2004an, udako gainerako hilabeteek urteko turista guztien % 41 bildu dute, 2002an ehuneko hori handiagoa izan bazen ere.

Turistek sasoiko joera horri eusten diote Euskadira errepidez iristen direnak aintzat hartzen baditugu, baina ez da hala gertatzen aire bidez datozenak soilik kontuan hartuta. Kasu, horretan, grafikoa askoz ere okerragoa da, punta esanguratsurik gabea, eta horrek aditzera ematen du aireportuko turistak mugiarazten dituzten arrazoi gehienak ez daudela oporrekin lotuta.

*La demanda turística en el País Vasco presenta un comportamiento estacional en su evolución dentro del año, respondiendo básicamente a las motivaciones de ocio y vacaciones, y centrándose en dos picos en julio y agosto (máximo absoluto) y un máximo relativo en diciembre, aunque de volumen similar a junio. En 2004, los otros meses de verano recogen más del 41% del total de turistas en el año, aunque esta participación era mayor en 2002.*

*Este perfil de los turistas en general se mantiene al contemplar los que entran en el País Vasco vía carretera, pero no así cuando se consideran los que acceden por vía aérea. En este caso la gráfica resulta mucho más tendida, sin picos realmente significativos, lo que da pie a afirmar que los turistas por aeropuerto tienen motivos predominantemente distintos del vacacional.*

AEA aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2002-2004, hilen arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2002 - 2004*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2002 | Guztira / ***Total*** | 878.603 | 660.625 | 217.978 |
| | Urtarrila/*Enero* | 35.859 | 20.689 | 15.170 |
| | Otsaila/*Febrero* | 40.444 | 26.479 | 13.965 |
| | Martxoa/*Marzo* | 48.574 | 32.154 | 16.420 |
| | Apirila/*Abril* | 52.107 | 36.048 | 16.059 |
| | Maiatza/*Mayo* | 52.996 | 35.208 | 17.788 |
| | Ekaina/*Junio* | 71.793 | 54.123 | 17.670 |
| | Uztaila/*Julio* | 152.620 | 128.206 | 24.414 |
| | Abuztua/*Agosto* | 180.984 | 155.321 | 25.663 |
| | Iraila/*Septiembre* | 75.273 | 54.433 | 20.740 |
| | Urria/*Octubre* | 66.953 | 48.692 | 18.261 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 42.869 | 27.353 | 15.516 |
| | Abendua/*Diciembre* | 58.131 | 41.919 | 16.212 |
| 2003 | Guztira / ***Total*** | 904.144 | 653.706 | 250.438 |
| | Urtarrila/*Enero* | 51.373 | 34.593 | 16.780 |
| | Otsaila/*Febrero* | 43.645 | 29.355 | 14.290 |
| | Martxoa/*Marzo* | 52.132 | 34.624 | 17.508 |
| | Apirila/*Abril* | 70.109 | 47.471 | 22.638 |
| | Maiatza/*Mayo* | 73.862 | 49.282 | 24.580 |
| | Ekaina/*Junio* | 69.486 | 49.713 | 19.773 |
| | Uztaila/*Julio* | 149.048 | 122.872 | 26.176 |
| | Abuztua/*Agosto* | 157.792 | 130.959 | 26.833 |
| | Iraila/*Septiembre* | 80.372 | 54.373 | 25.999 |
| | Urria/*Octubre* | 51.475 | 31.898 | 19.577 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 48.564 | 30.7884 | 17.780 |
| | Abendua/*Diciembre* | 56.286 | 37.782 | 18.504 |
| 2004 | Guztira / ***Total*** | 878.084 | 597.793 | 280.291 |
| | Urtarrila/*Enero* | 44.356 | 26.730 | 17.626 |
| | Otsaila/*Febrero* | 39.030 | 23.556 | 15.474 |
| | Martxoa/*Marzo* | 42.591 | 20.247 | 22.344 |
| | Apirila/*Abril* | 58.308 | 38.929 | 19.379 |
| | Maiatza/*Mayo* | 65.181 | 36.088 | 29.093 |
| | Ekaina/*Junio* | 73.428 | 49.291 | 24.137 |
| | Uztaila/*Julio* | 145.962 | 117.679 | 28.283 |
| | Abuztua/*Agosto* | 142.722 | 112.970 | 29.752 |
| | Iraila/*Septiembre* | 89.687 | 57.637 | 32.050 |
| | Urria/*Octubre* | 66.707 | 42.205 | 24.502 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 43.371 | 26.182 | 17.189 |
| | Abendua/*Diciembre* | 66.741 | 46.279 | 20.462 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadin turista kopururik handiena 2003 urtean erregistratu zen; alabaina, 2004. urtean ezin izan zaio kopuru horri eutsi, eta 2002. urtekoaren oso antzekoa izan da. Dena dela, ez dago esaterik atzerakada gertatu denik, 2004. urteko beherakada txikia izan delako, eta garrantzitsuena da 2002. urtean abiatu zen gorakada handiak ia hiru urte jarraian iraun duela.

Iaz bezala, 2004an errepide bidezko turista kopuruak behera egin du. Beheranzko joera hori urteko lehen bost hilabeteetan eta abuztuan nabarmendu zen gehien, baina urtearen azken zatian arindu zen nolabait.

Aireportu bidezko turistek, kopuruan betiere gutxiago direla aintzat hartuta, gora egin dute azken bi urteetan. 2004 historiako maximoa izan da (280.000 turista baino gehiago), eta horrek agerian uzten du Euskadik urrunagoko bisitariak erakarri dituela.

*El máximo de turistas que en el País Vasco se había alcanzado en 2003 no ha podido mantenerse en 2004, que se ha situado en un valor muy próximo al de 2002. De todos modos, no cabe hablar de regresión, ya que el descenso de 2004 es pequeño y lo importante es que el gran salto que se dio en 2002 se ha mantenido prácticamente tres años seguidos.*

*En 2004 los turistas por carretera descienden por segundo año consecutivo, a causa de una tendencia a la baja en los primeros cinco meses del año y en agosto, si bien se recuperó algo hacia la última parte del año.*

*Los turistas por aeropuerto, dentro de su inferior volumen, consiguen aumentos en los dos últimos años. 2004 representa un máximo histórico con más de 280.000 turistas, lo que es un síntoma apreciable en la atracción de visitantes de origen más lejano.*



EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2001 – 2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2001 - 2004*




**Iturria/Fuente:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Turisten hileroko bilakaera, garraiobidearen arabera. 2002-2004
*Evolución mensual de los turistas por modo de transporte. 2002 – 2004*




**Iturria/Fuente:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bizilekua

## *Lugar de residencia*

Frantziatik turista gutxiago etorri dira Euskadira 2004. urtean 2003. urtean baino (50.000 lagun gutxiago, zehazkiago). Hala eta guztiz ere, atzerritik etorritako turisten ia % 40 frantziarra zen (2003an baino hiru puntu gutxiago). Euskadiko nazioarteko turismoa Frantziako merkatuaren mende dago, beraz, eta aurreikustekoa da etorkizunean ere joera horrek indarrean jarraituko duela. Izan ere, elkarren arteko harreman-maila handia aintzat hartuta, ez dirudi lotura hori arriskuan dagoenik.

Aztertu diren gainerako herrialdeek, Beste herrialde batzuk multzoak izan ezik, hobera egin dute 2004an aurreko urteen aldean. Horien artean, Portugal da merkaturik esanguratsuena, urtetik urterako igoera erlatiborik handienak agertzen baititu. Herrialde horrek Euskadiko turismo osoaren % 9 bereganatu du 2004. urtean. 2003. urtean, % 7 bereganatu zuen, eta 2002an % 5,5. Horrenbestez, une honetan Portugal hirugarren merkatua da, Frantziaren eta Erresuma Batuaren atzetik. Italiak ere oso bilakaera positiboa izan du azken hiru urteetan. Erresuma Batuak hobekuntza txikia izan du 2004. urtean, eta bigarren jatorri gisa finkatu da. Alemania 2002ko mailara itzuli da, eta hala 2003ko beherakada zuzendu du.

Frantziatik eta Portugaldik Euskadira doazen turista gehienek errepidea aukeratzen dute. Erresuma Batutik, Alemaniatik eta Italiatik abiatzen diren gehienak, aldiz, airetik iristen dira. Europako gainerako herrialdeei dagokienez, turista gehiagok aukeratzen dute errepidea aireportua baino, baina esan beharra dago gertuko herrialdeek (Belgikak eta Holandak, esaterako) zerikusi handia dutela horretan.

*Los turistas franceses con destino principal en el País Vasco disminuyeron en algo más de 50.000 personas en 2004 en relación con 2003. Con todo, representaron prácticamente un 40% del total de turistas extranjeros recibidos, cuatro puntos menos que en 2003. El turismo internacional en Euskadi es, por tanto, muy dependiente del mercado francés; nada hace considerar que este no sea así en el futuro, y dado el grado de interrelación existente no parece que ello revista un especial riesgo.*

*El resto de países analizados, con la excepción del grupo Otros países, mejoran su posición en 2004 respecto a años precedentes. Entre ellos, Portugal es el mercado más significativo en cuanto que presenta la serie con incrementos relativos interanuales más altos. Este país recoge en 2004 un 9% del turismo total en el País Vasco, cifra que fue el 7% en 2003 y el 5,5% en 2002, situándose como tercer mercado, después de Francia y Reino Unido. Italia presenta también una evolución muy positiva en los tres últimos años. Reino Unido mejora en 2004 ligeramente, consolidándose como segundo origen muy estable. Alemania vuelve a recuperar el nivel de 2002, corrigiendo la baja de 2003.*

*La utilización de la carretera como vía de acceso al País Vasco es mayoritaria para residentes de Francia y Portugal, mientras que la vía aérea predomina en Reino Unido, Alemania e Italia. En países del resto de Europa, en términos absolutos, la carretera aporta más turistas que el aeropuerto, aunque ello es debido al comportamiento de países más próximos, como Bélgica y Holanda.*

**EAE aukeratu duten turistak, garraiobide eta bizilekuaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera.**
***Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte y lugar de residencia. Evolución anual 2002 - 2004***




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira aireportuz iristen diren turisten estatistikaren barruan, Erresuma Batua da kopururik handiena adierazten duena. Jarraian, Beste herrialde batzuk, Europako gainerakoak eta Alemania datoz. Herrialde edo jatorri multzo bakoitzetik Euskadira airez iritsi direnen kopuruak oso antzekoak izan dira azken hiru urteetan. Salbuespena Gainerako herrialdeak multzoaren aldetik etorri da, 2004. urtean ia hamar puntu galdu baititu 2003aren aldean, zenbateko absolutuetan izan duen beherakadaren eraginez.

Oro har, airetiko bideak garrantzi txikiagoa du, baina turistek gero eta gehiago erabiltzen dute Euskadira etortzeko, eta, hortaz, lurreko bidearekiko aldea txikitu da azken bi urteetan. Zalantzarik gabe eskertzekoa den joera hori Alemaniatik, Italiatik eta Europako gainerako herrialdeetatik datozen turisten eskutik etorri da, zerikusi handia izan baitute garraiobide horrek izan duen gorakadan (2003an, bereziki).

Gipuzkoa izan da Euskadi bisitatu duten turisten erakargune nagusia, bisita guztien % 61 bereganatzen baitu. Jarraian, Bizkaia dator, % 26arekin: Gipuzkoako lurraldearen erdira ere ez da iristen, beraz. Arabak Euskadiko turisten % 12 bakarrik hartzen du.

*Dentro de la estadística de turistas que llegan a Euskadi por aeropuerto, Reino Unido es el país que proporciona la cifra más elevada, seguido por Otros países, Resto de Europa y Alemania. Las participaciones de cada país o grupo de origen en el total de la vía se han mantenido muy estables en estos tres últimos años; la excepción la marca el grupo de Otros países, que ha perdido casi diez puntos de cuota en este modo de transporte en 2004 respecto a 2003, debido al descenso sufrido en términos absolutos.*

*En general, la vía aérea, con ser minoritaria, está generando importancia relativa frente a la vía terrestre como modo de entrada de turistas en los dos últimos años. Este efecto, que es sin duda deseable, viene causado por los turistas procedentes de Alemania, Italia y Resto de Europa, quienes especialmente en 2003 han mejorado su contribución al aumento registrado por este modo de acceso.*

*Gipuzkoa se configura como el polo atractor de la mayor parte de los turistas que visitan el País Vasco, concentrando un 61% del flujo total. A continuación se sitúa Bizkaia, que con un 26% no alcanza ni la mitad del territorio gipuzkoano. Araba apenas recibe el 12% de los turistas de Euskadi.*

**Errepidez iritsitako turistek aukeratutako lurralde historikoak, bizilekuaren arabera - 2004**
***Territorios Históricos de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia - 2004***

| | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 100 % | 13,0 % | 62,4 % | 24,6 % |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 100 % | 3,8 % | 75,1 % | 21,2 % |
| Alemania / *Alemania* | 100 % | 18,2 % | 64,9 % | 16,8 % |
| Italia / *Italia* | 100 % | 4,4 % | 46,2 % | 49,4 % |
| Portugal / *Portugal* | 100 % | 13,2 % | 57,1 % | 29,7 % |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 100 % | 12,0 % | 57,9 % | 30,0 % |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 100 % | 0,9 % | 81,3 % | 17,8 % |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gipuzkoak oro har ageri duen nagusitasun horri eusten dio fluxu globala osatzen duten nazionalitateei begiratzen badiegu. Frantzia, Erresuma Batua, Alemania eta Beste herrialde batzuk batez besteko lehentasun-mailaren gainetik daude, eta Erresuma Batuan eta Beste herrialde batzuetan bizi diren turistek oso balio altuak ematen dituzte. Italia da arau horretatik kanpo dagoen bakarra; hori delaeta, Gipuzkoak Bizkaiaren esku uzten du lehen postua. Hain zuzen ere, azken datu hori bitxia da benetan. Italiako turisten % 78k Gipuzkoa aukeratu zuen 2003. urtean. 2004an, aldiz, % 46k bakarrik. Eta ehuneko horiek, hurrenez hurren, Gipuzkoak urte bakoitzean lorturiko handiena eta txikiena dira.

Gipuzkoarekiko aldea badago ere, Bizkaiak kontuan hartzeko moduko maila lortzen du turisten lehentasunari dagokionez (gogoratu beharra dago errepide bidezko turismoa aintzat hartzen ari garela, eta turismo mota horrentzat mugarekiko gertutasuna funtsezkoa dela). Italia da 2004. urtean Bizkaian gehien nabarmendu den nazionalitatea (goian aipatu da fenomeno hori egoeraren araberakoa izan daitekeela), 2004. urtean kuota 33 ehuneko-puntutan hobetu baita. Bizkaian ere, Europako gainerako herrialdeek eta Portugalek lehentasun-maila altuak ematen dituzte.

Arabako lurraldeak, barnekoagoa denez, turista kopuru txikiena jasotzen du. Hala ere, 2004. urtean aldaketa batzuk gertatu dira, eta horrek Arabak Euskadin duen posizioa hobetzea ekarri du. Hain zuzen ere, turisten %18k Araba aukeratu du 2004. urtean. 2003an, aldiz, %8k bakarrik. Datu hori oso esanguratsua da, Araba turisten lehentasunetan bigarren tokira igaro baita Bizkaiaren aurretik. Erresuma Batutik eta Europako gainerako herrialdeetatik datorren turismoari dagokionez, halaber, Arabak bere posizioa hobetu du 2004. urtean.

*Esta primacía que ostenta Gipuzkoa en términos globales, se mantiene al contemplar las distintas nacionalidades que componen el flujo global. Francia, Reino Unido, Alemania y Otros países se sitúan por encima del nivel medio de preferencia, alcanzando unos valores muy notables en los turistas residentes en el Reino Unido y Otros países. Solamente Italia presenta una inversión de la regla, por lo que Gipuzkoa cede el primer lugar a Bizkaia. Este es un fenómeno curioso en tanto en cuanto Gipuzkoa fue el destino elegido por el 78% de los turistas italianos en 2003 y este porcentaje ha pasado a 46% en 2004, máximo y mínimo, respectivamente de lo obtenido por Gipuzkoa en cada año.*

*A pesar de la diferencia con Gipuzkoa, Bizkaia consigue unos niveles atractivos con la preferencia de los turistas (hay que tener en cuenta que se está considerando el turismo por carretera, para el que la proximidad de la frontera es decisiva). Italia es la nacionalidad más presente en Bizkaia durante 2004 (ya queda comentado arriba su posible comportamiento coyuntural), para lo que se ha mejorado la cuota en 2004 en 33 puntos porcentuales. Resto de Europa y Portugal muestran también unos niveles de preferencia notables por Bizkaia.*

*El territorio de Álava, como más interior, recibe el flujo de turistas más reducido. No obstante, en 2004 ha experimentado ciertos cambios que mejoran su posición en el contexto de Euskadi. Lo más significativo es que este año el 18% de los turistas prefirieron Álava frente al 8% que así lo hicieron en 2003, movimiento altamente significativo en la medida que ha pasado a ser el segundo destino en importancia de estos turistas superando a Bizkaia. También mejora su posición en 2004 para el turismo procedente de Reino Unido y Resto de Europa.*



## Errepidez iritsitako turistek aukeratutako udalerriak, bizilekuaren arabera 2004
## *Municipios de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia 2004*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Orokortze larrian erortzeko beldurrik gabe esan dezakegu Euskadi aukeratzen duten turisten gehiengo zabalak hiriburuak dituela jomugan. Hain zuzen ere, nazionalitate guztietako turista gehienak Donostiako, Bilboko eta Gasteizko metropolietan biltzen dira. Horien artean, merkatu igorle guztien lehentasunak Donostian biltzen dira, Italiarena izan ezik. Hain zuzen ere, azken herrialde horrek Bilbori eman dio lehentasuna 2004. urtean.

Frantzia izan da Euskadira errepidez etortzea aukeratu duten turisten igorle nagusia, eta herrialde horretako herritarren bisitek adierazten dute sakabanaketa-maila handiena. Hain zuzen ere, turista horiek Gipuzkoan barna hedatzen dira, goitik behera, eta hortik honako hiru gune hauetara, bereziki: Bermeora, Bilbora eta Gasteizera. Donostiak Frantzian bizi diren turisten % 34 bereganatzen du. Bilbok, aldiz, % 22. Gainerakoak Gipuzkoako zenbait herrialdetan banatzen dira (Hondarribian, Irunen eta Zarautzen, bereziki), eta hortik Gasteizera eta Bizkaiko barnealdeko eta kostaldeko eremu batzuetara iristen dira.

Erresuma Batuan bizi direnek Donostia (% 53) eta Bilbo (% 19) bisitatzen dituzte bereziki, baina Gipuzkoako kostaldea ahaztu gabe (Hondarribia eta Zumaia, esaterako). Oro har, turismo mota horrek gune bakan batzuk ditu jomugan.

Portugaldarren bisita gehienak Donostian (% 41) eta Bilbon (% 30) biltzen dira. Gasteizera eta Irunera ere maiz jotzen dute. Bisitak gutxien sakabanatzen dituztenak dira.

Alemaniarrek Donostiara (% 42) eta Irunera (% 19) jotzen dute bereziki, bai eta Bilbora eta Gasteizera ere, neurri txikiagoan bada ere.

Italiarrek Bilbori (% 45) eta Donostiari (% 30) ematen diete lehentasuna, eta Hondarribiara, Irunera eta Zarautzera ere hainbat bisita egiten dituzte.

Europako gainerako herrialdeetan bizi diren turistek hiru hiriburuak aukeratzen dituzte bereziki: Donostia (% 36), Bilbo (% 27) eta Gasteiz (% 12). Gainerakoak beste zenbait herrialdetan banatzen dira (Gipuzkoan, bereziki).

*Se puede decir, sin temor a incurrir en grave generalización, que el turismo en Euskadi es esencialmente capitalino. Donostia, Bilbao y Vitoria son las entidades metropolitanas que albergan la mayor parte de los turistas de las diferentes nacionalidades. Entre ellas, es Donostia la que concentra las preferencias más acusadas para todos los mercados emisores, con la excepción de Italia, que tiene en Bilbao su punto focal en 2004.*

*El principal emisor de turistas por carretera con destino en el País Vasco, Francia, es posiblemente el que presenta un perfil más diseminado en las visitas que hacen sus residentes. Dibujan un vector de expansión que cubre en "embudo" de Gipuzkoa y termina en el arco puntuado por Bermeo, Bilbao y Vitoria. Donostia acapara el 34% de turistas con esta residencia y Bilbao el 22%. El resto se distribuye por localidades esencialmente gipuzkoanas, resaltando Hondarribia, Irún y Zarautz, llegando luego a Vitoria y algunas zonas interiores y de costa de Bizkaia.*

*Los residentes en el Reino Unido visitan especialmente Donostia (53%) y Bilbao (19%), pero también la zona costera de Gipuzkoa, como Hondarribia y Zumaia. En general se trata de un turismo focalizado en pocos destinos.*

*Los portugueses centran la mayor parte de sus visitas en Donostia (41%) y Bilbao (30%), con las siguientes cifras más significativas en Vitoria e Irún. Son las nacionales con menor dispersión en sus visitas.*

*Los alemanes acuden preferentemente a Donostia (42%) y a Irún (19%), siendo Bilbao y Vitoria otros destinos a resaltar.*

*Los italianos muestran sus preferencias por Bilbao (45%) y Donostia (30%), teniendo presencia digna de señalar en Hondarribia, Irún y Zarautz.*

*Los turistas con residencia en Otros países de Europa se dirigen fundamentalmente a las tres capitales: Donostia (36%), Bilbao (27%) y Vitoria (12%), distribuyéndose el resto por otros municipios básicamente de Gipuzkoa.*

## Bidaiaren arrazoia
## *Motivo del viaje*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira aisiagatik eta oporrengatik iristen diren bidaia turistikoak dira urte-sasoi bati estuen lotzen zaizkionak, eta uztailean eta abuztuan izaten dira urteko kopuru handienak. Arrazoi pertsonal eta familiarrengatik bidaiatzen dutenek ere urte-sasoi bat aukeratzen dute normalean, gabonak, kasu horretan. Lanaren, negozioen edo ikasketen arrazoiak direla medio bidaiatzen dutenak, aldiz, ez dira urte-sasoi jakin batean biltzen. Azkenik, kopuruan oso gutxi badira ere, bestelako arrazoiengatik bidaiatzen duten turistak abuztuan ere biltzen dira.

*Los viajes turísticos de los visitantes que llegan al País Vasco por motivo de ocio y vacaciones son los que presentan un patrón estacional más acusado, con máximos anuales en los meses de julio y agosto. Este tipo de comportamiento también lo registran los turistas por motivos personales y familiares, si bien estos marcan otro pico estacional correspondiente a la época navideña. Los que viajan por motivos de trabajo, negocio o estudios carecen de perfil estacional observable. A pesar de su muy escaso volumen, los turistas por otros motivos tienen también agosto como mes de concentración.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2002-2004 hilen arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución mensual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa alderatuta 2002-2004
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2002- 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2003. urtean aisiagatik eta oporrengatik bidaiatu zuen turista kopurua handitu zen. 2004an, aldiz, kopuru horrek behera egin du (5 puntu), eta horren ordez arrazoi pertsonal eta familiarrengatik bidaiatzen dutenak nabarmendu dira. Hala ere, oraindik ere aisia eta oporrak dira bidaiatzeko arrazoi nagusiak (kasuen % 53an). Negozio eta arrazoi pertsonalengatik egindako bidaiak, aldiz, % 20 dira, gutxi gorabehera.

Oro har, bidaiatzeko arrazoiak oso antzekoak dira espainiar Estatuan eta Euskadin. Dena dela, honako bi alde hauek nabari dira: batetik, aisia eta oporren arrazoia askoz ere sendoagoa da estatu mailan (%83, 2004. urtean), eta, bestetik, bidaiatzeko arrazoien sailkapena askoz ere egonkorragoa da urtetik urterako ikuspegi batetik.

Aitzitik, lan- eta negozio-arrazoiek eta arrazoi pertsonal eta familiarrek askoz ere garrantzi handiagoa dute Euskadin Estatuan baino. Lehen kasuan, hori hala da Euskadin industria-kontzentrazio handiagoa dagoelako. Bigarren kasuan, aldiz, elkarren arteko harreman soziologikoak sendoagoak direlako (Frantziarekiko, bereziki).

*Después de un año 2003 en que aumentó la participación de los turistas que viajaron por motivos de ocio y vacaciones, en 2004 se ha reducido en cinco puntos, siendo sustituida esencialmente por el aumento alcanzado por motivos personales y familiares. No obstante, ocio y vacaciones sigue siendo la razón más poderosa para viajar, un 53% de los casos, mientras que el turismo de negocios y de motivos personales se mueven muy próximos al 20%.*

*En general, el patrón de motivaciones que se observa para el conjunto del Estado español es muy parecido al de la Comunidad de Euskadi, con dos diferencias básicas: el motivo de ocio y vacaciones es mucho más potente en el conjunto del estado (un 83% en 2004) y la participación de los distintos motivos para viajar están mucho más estabilizadas desde una perspectiva interanual.*

*Por el contrario, la importancia que tiene para el País Vasco los motivos de trabajo y negocios y los personales y familiares, es mucho más destacada que para el conjunto del Estado. Ello responde, en primer lugar, a la más intensa concentración industrial existente en Euskadi, y, en segundo término, a las interrelaciones sociológicas más tupidas especialmente en Francia.*

**EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko modua eta garraiobidearen arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera**
***Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2002 - 2004***




***Iturria/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira errepidez eta aireportuz iristen diren turistak oso bestela banatzen dira, bidaiatzeko arrazoien arabera. Errepidea aukeratzen dutenen artean aisia eta oporrak nagusi dira gainerako arrazoien gainetik. Aireportuz iristen direnen turisten artean, aldiz, oreka handiagoa da aisiagatik eta oporrengatik bidaiatzen duten turisten eta lan- eta negozio-arrazoiak direla-eta bidaiatzen dutenen artean, azken horien kopurua txikixeagoa bada ere. Arrazoi pertsonal eta familiarrengatik bidaiatzen dutenak askoz ere gutxiago dira, eta, azkenik, bestelako arrazoiengatik bidaiatzen dutenak oso gutxi dira.

Aitzitik, arrazoi pertsonalak eta familiarrak bigarren tokian dauden errepidea aukeratzen dutenen artean, Ipar Euskal Herriko lagunekiko harremanak direla-eta.

2004an, oporrek eta lanak zerikusi handiagoa izan dute errepide bidezko turismoan, eta arrazoi pertsonalek, aldiz, gora egin dute, 2003. urtearen aldean. Azkenik, airetiko bideak gora egin du hiru arrazoi motetan.

*Son muy notables las diferentes distribuciones que tienen los turistas que llegan al País Vasco por carretera y por aeropuerto según las motivaciones del viaje. Entre los primeros hay un fortísimo predominio de ocio y vacaciones sobre el resto de motivos, mientras que en los turistas por aeropuerto se distribuyen más igualitariamente los motivos de ocio y vacaciones y los de trabajo y estudios, aunque estos últimos son algo inferiores, con una importancia mucho más reducida de los motivos personales y familiares, y la presencia prácticamente anecdótica de otros motivos.*

*En cambio, el motivo personal y familiar ocupa el segundo puesto entre los turistas por carretera, a causa de las relaciones interpersonales en el País Vasco Francés.*

*En 2004, se registran descensos del turismo por carretera debido a motivos de vacaciones y trabajo, creciendo la componente personal, respecto a 2003. La vía aérea experimenta incrementos en los tres tipos de motivación.*



**EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2004**
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y lugar de residencia. 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2004an aisiagatik eta oporrengatik bereziki bidaiatu zuten Euskadira frantziar turistek, eta askoz ere gutxiago izan ziren lanaren eta ikasketen arrazoiengatik bidaia hori egin zutenak. Frantziako turismoari dagokionez, honako bi ezaugarri hauek nabarmendu behar dira: batetik, bertako turista kopurua betiere handiena da, arrazoia edozein izanda ere, beste nazionalitateen aldean, eta, bestetik, arrazoi pertsonal eta familiarrengatik Euskadi bisitatzen duten frantziarren kopurua beste edozein herrialdetako turista kopurua baino handiagoa da, azken horien arrazoia edozein dela ere, aisia eta oporrak barne.

*En 2004 los turistas franceses viajaron a Euskadi básicamente por motivos de ocio y vacaciones y personales, siendo bastante más bajo el número de turistas por motivos de trabajo y estudios. Hay dos rasgos a resaltar respecto al turismo francés: su número de turistas es siempre mayor, cualquiera que sea el motivo, al compararlo con otras nacionalidades; y, en segundo lugar, el número de franceses que visitan el País Vasco por razones personales y familiares supera a los turistas de cualquier otro país no importante cual sea el motivo, incluso el de ocio y vacaciones.*



## Egonaldiaren iraupena

## *Duración de la estancia*

Euskadi bisitatzen duten turista gehienek egonaldi txikia egiten dute: gehienez bi gau (% 48k 2004an). Alde handia dago horien eta hiru eta zazpi gau bitarte igarotzen dituztenen artean gainerako gaualdi-tarteetan.

Bi egonaldi mota horien artean bestelako jokaera nabari da herrialdeen arabera. Bi gauetik beherako egonaldiek beheranzko joera hartu dute azken hiru urteetan. Hiru eta zazpi gau bitarteko egonaldietan, aldiz, alderantzizko joera nabari da. Izan ere, azken horiek nabarmen igo dira 2004. urtean gainerako gaualditarteen aldean. Hain zuzen ere, gainerako tarte horiek guztiek behera egin dute 2003. urtearen aldean.

Egonaldi laburrerako egiturazko joera hori, asteburuko bidaien ondorio dena, oso bestelakoa da Estatu mailako joeraren aldean. Azken horren arabera, astebeteko eta bi asteko egonaldiek ematen dituzte mailarik altuenak. Hori bat dator honako datu honekin: oporren arrazoiaren kuota 30 puntu altuagoa da Espainian Euskadin baino.

*La mayoría de los turistas que visitan el País Vasco (un 48% en 2004) disfrutan el viaje con una estancia reducida de no más de dos noches. Estos, junto a los que pasan entre tres y siete noches presentan una diferencia muy acusada en los demás tramos de pernoctación.*

*Entre ambos tipos de estancia se observa un comportamiento internacional diferente. Las estancias inferiores a dos noches toman en los tres últimos años una tendencia creciente. Ritmo que se invierte en la estancia de tres a siete noches. Estas últimas presentan en 2004 un notorio incremento a costa de todas las tramas restantes, que decrecen respecto a 2003.*

*Este sesgo estructural hacia la estancia corta, generada por viajes tipo fin de semana, es una diferencia muy acusada con el comportamiento a nivel del Estado, en el que las estancias semanales y quincenales representan los máximos niveles. Situación que es concordante con el hecho de que es el conjunto del Estado el motivo de vacaciones tiene 30 puntos de cuota más que en el País Vasco.*

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

**EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraiobidearen arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera**
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia y modo de transporte. Evolución anual 2002- 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2004. urtean Euskadiko aireportuetara iritsitako turista kopuruak gora egin du gaualdi-tarte guztietan, iraupenik luzeeneko tartean izan ezik. Gorakada hori handiagoa izan da hiru eta zazpi gau bitarteko egonaldian, eta Euskadira aireportuz iritsi diren turista gehienak gaualditarte horretan biltzen dira. Gainera, tarte horri dagokionez esan beharra dago errepidez eta airez iristen direnen arteko aldea txikitzen ari dela.

Alabaina, errepide bidezko turismoa da jaun eta jabe, eta bidaia gehienak asteburuko ohiko aisia-bidaien egonaldi laburrei dagozkie, 2004an beherakada nabaria izan badute ere. Aitzitik, 3 eta 7 egun bitarteko egonaldiek gorakada txikia izan zuten.

Euskadiko eta Estatuko gaualdi kopuruen artean alde handia dago errepidea aukeratzen dutenen artean, Estatuarena opor-turismoa baita gehienbat, 15 egunera arteko egonaldi ertainekoa. Aireportuko turismoan, aldiz, alde hori txikiagoa da, Euskadi mailan 8 eta 15 gau arteko tartean eskasia nabari bada ere.

*En el año 2004 se produce un aumento de turistas por aeropuerto al País Vasco en todos los tramos de pernoctaciones, excepto en el de más larga duración, aumento que es más extenso en la estancia de tres a siete noches, que ostenta el máximo del conjunto. Este tramo se aproxima más que nunca a los niveles que él mismo registra en el turismo por carretera.*

*El turismo por carretera es el dominador del panorama, correspondiendo el mayor volumen a estancias de corta duración típicas de los viajes de ocio de fin de semana, aunque en 2004 señalan un descenso apreciable. Al contrario, las estancias entre 3 y 7 días aumentaron ligeramente.*

*El perfil de pernoctación, que en el caso de la carretera difiere sustancialmente del que dibuja al Estado (caracterizando por un turismo vacacional de estancia media, hasta 15 días), está más cerca de éste al representar el turismo por aeropuerto, si bien con un déficit en las estancias de 8 a 15 noches.*

## Batez besteko egonaldia

## *Estancia media*

Euskadi aukeratu duten turisten batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren distantziaren artean nolabaiteko lotura dagoela ikusten da: bizilekua zenbat eta urrunago egon, batez besteko egonaldia handiagoa da. Hala, Frantziako turistak dira egun gutxien ematen dituztenak (4 egun), eta gauza bera esan daiteke portugaldarrei buruz. Alabaina, errepidearen erabilerak eta pasadizoko turismoa egitea zerikusia izan dezakete azken kasu horretan.

Profila ez da aldatu 2003aren aldean.

*Se podría apreciar una cierta correlación entre la estancia media y la distancia de la residencia de los turistas al País Vasco, aumentando aquella a medida que lo hace ésta. Así, los turistas franceses son los de estancia más reducida (4 días), seguidos de los portugueses (prácticamente con igual registro), aunque en este último caso quizás la duración de la estancia está más promovida en la utilización de la carretera y la realización de turismo transeúnte.*

*El perfil se mantiene invariante respecto a 2003.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera.
Estatua – Autonomia Erkidegoa alderatuta 2004
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia.*
*Comparación Estado – C.A. País Vasco 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bizileku-herrialdeen arabera, turisten batez besteko egonaldi ohikoak oso antzekoak dira Euskadin eta Estatuan. Bietan ere, Europatik kanpoko Beste herrialde batzuetako turistek maximo absolutua lortu dute, eta Europako gainerako herrialdeetan bizi diren turistei dagokienez ere antzeko progresioa nabari da, Euskadi bisitatzen dutenen artean batez besteko egonaldia handiagoa bada ere.

Nabarmentzekoa da ere Frantziako, Erresuma Batuko eta Alemaniako turisten batez besteko egonaldiak handiagoak direla Estatuan Euskadin baino, bereziki opor-bidaia ertain eta luzeak egiten baitituzte. Maximo erlatiboa Alemania da Estatuan eta Italia Euskadin.

Nabarmentzekoa da herrialde edo bizileku talde guztietan alde handia dagoela batez besteko egonaldiari dagokionez, errepideko eta aireportuko bisiten artean. Hain zuzen ere, azken horiek izaten dute iraupen handiena.

*Los patrones de estancia media de los turistas según país de residencia están muy próximos entre el País Vasco y el Estado. Con un máximo absoluto compartido para los nacionales de grupo Otros países (no europeos) y una progresión semejante en otros residentes europeos, aunque la estancia media es mayor para los visitantes de Euskadi.*

*Cabe también señalar la superior estancia media en el Estado para países como Francia, Reino Unido y Alemania, que disfrutan sobre todo de viajes vacacionales de media y larga duración. Y la sustitución del máximo relativo de Alemania (en el Estado) por el de Italia en Euskadi).*

*Es notable la diferencia de estancia media que se produce para todos los países o grupos de residencia, entre las visitas por carretera y aeropuerto, produciendo éstas las visitas de mayor duración.*

2004. urtean, Euskadira airez iristen diren turisten batez besteko egonaldia oso tarte estuan mugitzen da (hamar eta hamahiru gau bitarte), eta Italia eta Portugal daude horren buruan. Europatik kanpoko herrialdeetatik datozen turistak gehiengoa dira alde handiarekin, bidaia luzea aprobetxatu behar baitute.

Errepide-eredua oso bestelakoa da. Batez besteko egonaldia tarte zabalagoan baina ez oso luzean banatzen da (3,5 eta 9 gau bitarteko kopurua). Aurten, frantziarrak eta portugaldarrak kokatu dira tarte horren behealdean, eta italiarrak, aldiz, buruan.

Europatik kanpo bizi diren turisten artean egonaldi-alde handia dago bi garraiobideei dagokionez, eta horrek aditzera ematen du herrialde horietatik errepidez iristen direnek Euskaditik kanpoko beste jomuga bat dutela bidaia egiterakoan.

*En el año 2004, la estancia media de los turistas que visitan el País Vasco por vía aérea se mueve en un intervalo muy estrecho, entre diez y trece noches, situándose Italia y Portugal en el extremo superior. Los turistas procedentes de orígenes no europeos marcan el máximo con mucha diferencia, ya que tienen que aprovechar un largo desplazamiento.*

*El modelo de carretera es muy diferente. La estancia media se distribuye en un intervalo más extendido, pero tampoco de gran longitud (un mínimo de 3,5 noches y un máximo de 9), con franceses y portugueses situados en las posiciones inferiores y el máximo ocupado este año por los italianos.*

*La gran diferencia de estancia de los residentes fuera de Europa entre las dos vías de acceso, indica con estas nacionalidades la explotación de un viaje principal con destino fuera de Euskadi.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldia, bizileku eta garraiobideoren arabera 2004
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media, lugar de residencia y modo de transporte 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



## Ostatu-mota

## *Tipo de alojamiento*

Euskadi bisitatzen duten turisten % 58k hoteletan edo antzekoetan hartzen du ostatu, beste aukera guztiak alde batera utzita. Ostatu mota hori nagusi da, edozein garraiobide baliatzen dutela ere, baina aireportuko bidaiariak dira horrelako ostatu arautuak gehien erabiltzen dituztenak.

Azken hiru urteetan, hotel-segmentuak gora egin du ostatu turistiko gisa, zenbateko absolutuetan zein erlatiboetan, eta, azken horri dagokionez, doako etxebizitza eta bestelako alojamenduak ordezten ari da. Horren haritik, hotelak, azken bi urteetan ez bezala, 2001. urteko partehartze mailaren parean jarri dira berriz ere 2004an. Gainerako ostatu motetan, beherakada txikia nabari bada ere, aldaketak txikiagoak izan dira.

Airetiko turistak dira ostatu mota guztiak gehien erabiltzen dituztenak, bestelako alojamenduak izan ezik. Azken ostatu mota hori errepidez iristen diren turistek baliatzen dute bereziki. Izan ere, kontuan hartzekoa da bisitari horiek ohikoagoak direla eta ingurunea hobeto ezagutzen dutela. Horrenbestez, hain arautua ez dagoen eta ezkutuagoa dagoen ostatu-eskaintza baliatzen dute.

*El 58% de los turistas que visitan el País Vasco utilizan alojamientos en hoteles o similares frente a las otras posibilidades. Esta preferencia se mantiene independientemente de la vía por la que acceden, aunque son viajeros por aeropuerto los usuarios más intensos de este tipo reglado de alojamiento.*

*La importancia del segmento hotelero ha venido creciendo en su función de albergue turístico en los último tres años, tanto en términos absolutos como relativos; en este último aspecto está sustituyendo tanto a la vivienda gratuita como a Otros alojamientos. En 2004 el alojamiento hotelero ha vuelto a situarse en los niveles de participación de 2001, que había perdido los dos últimos años. El resto de tipos, con ligera tendencia a la baja, tienen unos cambios de menor calado.*

*Los turistas por vía aérea son mayores usuarios de todos los tipos de establecimiento menos en el grupo de Otros alojamientos. En este último la importancia de los turistas por carretera es sustantiva, haciendo muy explicable porque los primeros son visitantes más asiduos y conocedores del entorno, lo que les hace aprovechar la oferta de alojamiento menos reglada y más oculta.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y modo de tranporte. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadi eta Estatua aukeratzen duten turisten artean antzekotasunak eta aldeak nabari dira aukeratutako ostatu motari dagokionez. Bietan ere doako etxebizitza eta hotelak neurri berean erabiltzen dira, baina azken kasu horretan aldea handiagoa da, Estatuko hotel-eskaintza zabalagoa eta dibertsifikatuagoa delako.

Alderik handienak, ordea, alokatutako etxebizitzen eta bestelako alojamenduen ataletan ageri dira. Lehen kasuan, erabilera turistikorako alokairu-etxebizitzen eskaintza oso txikia delako Euskadin. Bigarrenean, aldiz, kanpinei eta bestelako alojamenduei dagokien eskaintza zabalagoa delako Euskadin Estatuan baino.

*El comportamiento de los turistas en su forma de alojarse tiene semejanzas y disimilitudes cuando se compara el de Euskadi con el del Estado. Ambos tienen participaciones parejas en el uso de vivienda gratuita y hoteles, aunque en este último caso es mayor la distancia a causa de la mayor y más diversificada oferta hotelera en el Estado.*

*Las diferencias más acusadas de los dos perfiles se hacen notar en vivienda alquilada y otros alojamientos. En el primer caso debido a la oferta muy reducida de vivienda en alquiler para uso turístico en Euskadi. Y en el segundo, en cambio, por la mayor abundancia de oferta relativa de campings y otros alojamientos en el País Vasco respecto al Estado.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren eta garraiobidearen arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Euskadi aukeratu duten turisten bizilekuherrialde guztientzat hotelak eta antzekoak dira ostatu motarik erabiliena.

Logikoa denez, frantziarrak dira Euskadiko ostatu-eskaintzaren kontsumitzaile nagusiak. Hori bereziki nabarmentzen da bestelako alojamenduei dagokienez, ondoko herrialdean bizi direnak eskariaren % 51 baitira, gertuago egonik horrelako alojamenduen (kanpinak, karabaningak eta abar) berri zehatzagoa dutelako. Orobat, frantziarrak dira doako etxebizitza gehien erabiltzen dutenak, bertako hainbat senide eta lagunen eta Euskadiko herritarren arteko gertuko harremanen ondorioz.

Frantziarren atzetik, Europako beste herrialde batzuetan bizi direnak dira doako etxebizitza eta bestelako alojamenduak gehien erabiltzen dituztenak.

Nabarmentzekoa da, halaber, Europatik kanpo bizi diren hainbat lagunek ere doako etxebizitza erabiltzen dutela, emigratutako senideak bisitatzeko, agian.

*Para todos los países de residencia de los turistas con destino en Euskadi, hoteles y similares es el tipo de alojamiento más ampliamente utilizado.*

*Los franceses son, como no podía ser menos, los grandes consumidores de la oferta de alojamiento del País Vasco. Donde esta situación se hace más notoria es en el grupo de otros alojamientos, en el que los residentes del país vecino representan el 51% de la demanda, por su conocimiento más preciso y sobre el terreno de la situación de los diferentes campings, caravaning, etc. También es muy notable la impronta francesa en el uso de vivienda gratuita, consecuencia de las próximas relaciones de familiares y amistades con naturales de Euskadi.*

*Los residentes en otros países europeos son los segundos utilizadores de vivienda gratuita y otros alojamientos, después de los franceses.*

*Destaca también la posición de residentes no europeos en el uso de vivienda gratuita, posiblemente por visitas de familiares emigrados.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-mota eta bizilekuaren arabera 2004
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y lugar de residencia 2004*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

# EAE aukeratu duten txangozaleak

# *Excursionistas con destino en el País Vasco*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*

2004. urtean, txangozaleak Euskadin izan diren bisita guztien % 89 izan dira. Joera hori azken urteetan mantendu da, eta Euskadiko jarduera turistikoaren eta jarduera globalaren ezaugarri sakon bat uzten du agerian.

2004an, txangozaletasuna % 3,6 igo da lehengo urtearen aldean (guztira, 250.000 txangozale gehiago), eta horrek beherakada ekarri du 2003. urtean erregistratu zen igoerari (% 9,3) dagokionez, baina oraindik ere agerian uzten du fluxu horrek indar handia duela negozio turistikoaren oinarrizko iturri gisa.

*El excursionismo ha representado en 2004 el 89% de todas las visitas de extranjeros recibidas en el País Vasco. Esta participación mantenida en los últimos años, pone de manifiesto una característica profunda para la actividad turística y global en Euskadi.*

*En 2004, el excursionismo ha crecido un 3,6% respecto al año anterior, 250.000 excursionistas más, suponiendo un declive respecto al incremento que se registró en 2003 (9,3%), pero que todavía revela la fuerza de este flujo como fuente primordial del negocio turístico.*

**EAE aukeratu duten txangozaleak, garraiobidearen arabera. 2002-2004 hilen arteko bilakaera**
***Excursionistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2002 - 2004***

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| Guztira / *Total* | | 20.537.332 | 20.520.373 | 16.959 |
| 2002 | Guztira / ***Total*** | 6.366.924 | 6.364.427 | 2.497 |
| | Urtarrila/*Enero* | 409.785 | 409.741 | 44 |
| | Otsaila/*Febrero* | 414.969 | 414.871 | 98 |
| | Martxoa/*Marzo* | 494.996 | 494.904 | 92 |
| | Apirila/*Abril* | 499.673 | 499.387 | 286 |
| | Maiatza/*Mayo* | 508.679 | 508.614 | 65 |
| | Ekaina/*Junio* | 483.893 | 483.559 | 334 |
| | Uztaila/*Julio* | 635.689 | 635.392 | 297 |
| | Abuztua/*Agosto* | 880.529 | 880.071 | 458 |
| | Iraila/*Septiembre* | 560.934 | 560.464 | 470 |
| | Urria/*Octubre* | 506.425 | 506.300 | 125 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 452.848 | 452.724 | 124 |
| | Abendua/*Diciembre* | 518.505 | 518.401 | 104 |
| 2003 | Guztira / ***Total*** | 6.958.499 | 6.953.247 | 5.252 |
| | Urtarrila/*Enero* | 449.166 | 449.100 | 66 |
| | Otsaila/*Febrero* | 411.865 | 411.734 | 131 |
| | Martxoa/*Marzo* | 510.994 | 510.129 | 865 |
| | Apirila/*Abril* | 529.652 | 529.216 | 436 |
| | Maiatza/*Mayo* | 573.945 | 573.806 | 139 |
| | Ekaina/*Junio* | 447.711 | 447.217 | 494 |
| | Uztaila/*Julio* | 713.641 | 713.269 | 372 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.036.994 | 1.036.090 | 904 |
| | Iraila/*Septiembre* | 592.930 | 592.076 | 854 |
| | Urria/*Octubre* | 534.479 | 534.031 | 448 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 571.974 | 571.674 | 300 |
| | Abendua/*Diciembre* | 585.148 | 584.905 | 243 |
| 2004 | Guztira / ***Total*** | 7.211.909 | 7.202.699 | 9.210 |
| | Urtarrila/*Enero* | 472.245 | 472.029 | 216 |
| | Otsaila/*Febrero* | 457.924 | 457.432 | 492 |
| | Martxoa/*Marzo* | 473.520 | 472.879 | 641 |
| | Apirila/*Abril* | 612.953 | 611.856 | 1.097 |
| | Maiatza/*Mayo* | 574.099 | 573.733 | 366 |
| | Ekaina/*Junio* | 628.523 | 627.297 | 1.226 |
| | Uztaila/*Julio* | 683.928 | 683.163 | 765 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.004.385 | 1.002.248 | 2.137 |
| | Iraila/*Septiembre* | 563.480 | 562.696 | 784 |
| | Urria/*Octubre* | 617.993 | 617.165 | 828 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 528.794 | 528.469 | 325 |
| | Abendua/*Diciembre* | 594.065 | 593.732 | 333 |

***Iturria/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Txangozaletasuna errepideko fenomenoa da, eta oso urri dira airetik iritsi diren txangozaleak (guztien % 1,3 2004an). Dena dela, nabarmentzekoa da aurten airez iritsi diren txangozaleen proportzioa % 75 igo dela 2003aren aldean. Gainera, orain artean inoiz ez bezala, apirilean, ekainean eta abuztuan mila txangozale baino gehiago iritsi dira Euskadira aireportua erabiliz.

Euskadira errepidez iristen diren txangozaleei dagokienez, esan beharra dago ia guztiak Frantziatik datozela: guztien % 98, 2004. urtean. Gainerako nazionalitateek oso presentzia txikia dute grafikoan.

Txangozaleek udako hilabeteak baliatzen dituzte beren jarduera turistikoa gauzatzeko. Urtarrilean eta otsailean iristen dira txangozale gutxien, eta gero pixkanapixkana gora egiten dute abuztura arte. Abuztuko balioek urte hasierakoak bikoiztu egiten dituzte. Urte bakoitzeko azken lau hilabeteak nahiko egonkorrak izan ohi dira, eta 600.000 bisitari inguru iristen dira Euskadira hilabete bakoitzean (gaualdirik gabe).

2004. urtean, abuztuan airez iritsi direnen ehunekoa are handiagoa izan da; hain zuzen ere, garraiobide hori erabiliz Euskadira etorri diren txangozale guztien % 23 8 (ia laurdena) abuztuan iritsi da.

*El excursionismo es un fenómeno de carretera, la vía aérea está muy poco representada (el 1,3% del total en 2004). No obstante, cabe resaltar que este año los excursionistas por aeropuerto han crecido un 75% respecto a 2003, superando el millar en los meses de abril, junio y agosto, hecho que antes nunca había ocurrido.*

*Francia es la proveedora por antonomasia de excursionistas por carretera al País Vasco, llegando en 2004 a englobar el 98% del total. El resto de nacionalidades apenas se representan en el gráfico.*

*Los excursionistas concentran su actividad turística en los dos meses de verano. Su número señala el mínimo entre los meses de enero y febrero, para luego ir progresando en ritmo hasta agosto, cuando alcanza valores que doblan los de comienzo del año. Los cuatro últimos meses de cada período anual suelen mantenerse bastante estables en torno a una cifra de 600.000 visitantes sin pernoctación.*

*El acceso por vía aérea presenta este año de 2004 un pico estacional todavía más agudo en agosto, este mes ha supuesto más del 23%, casi la cuarta parte, del total de excursionistas llegados por este modo de transporte.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

**EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2001-2004 urte arteko bilakaera**
***Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2001 - 2004***




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

**EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. 2001-2004 urte arteko bilakaera**
***Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2001 - 2004***




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



## Bisiten arrazoiak eta maiztasuna

## *Motivos y frecuencias de las visitas*

Erosketak eta zerbitzu pertsonalak, eta aisia dira bisita gehien eragiten dituzten arrazoiak, Euskadira errepidez iristen diren txangozaleen artean. Gainerako motibazioak askoz ere atzerago geratzen dira. 2004an, arrazoi horietako lehenak horrelako bisitarien % 54 erakarri du, eta bigarrenak % 32. Gainera, 2004 urtean bigarren urtez jarraian, erosketa eta zerbitzu pertsonalen arrazoi hori nabarmen igo da zenbateko absolutuetan, eta are gehiago erlatiboetan. Aisiaren arrazoiaren garrantziak, aldiz, behera egin du beste horren aldean.

Gainerako arrazoiek (errepideko txangozaleen % 14, guztira) aurreko urteetako zenbatekoei eusten diete gutxi gorabehera nazioarteko konparazioan. Horien artean, lana eta negozioak dira arrazoi nagusiak: 600.000 bisita 2004an. Senide eta lagunak bisitatzeko, aldiz, 220.000 txango egin ziren guztira.

*Compras y servicios personales junto con ocio son los motivos que inducen el mayor número de visitas, con grandes diferencias respecto al resto de motivaciones, de excursionistas por carretera al País Vasco. En 2004, el primero ha representado el 54% y el segundo el 32% de todos los visitantes de este tipo. Además, este motivo de compras y servicios personales ha registrado un importante incremento, en términos absolutos y más marcado en términos relativos, en 2004 por segundo año consecutivo, mientras que el motivo de ocio pierde relevancia frente a aquél.*

*Los restantes motivos, con una participación conjunta del 14% dentro del excursionismo por carretera, mantienen cifras más o menos estables en la comparación internacional. Entre ellas, es la de trabajo y negocios la motivación más nutrida, por encima de 600.000 visitas en 2004, seguida de las visitas a familiares y amigos, 220.000.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2002-2004 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución anual 2002 - 2004*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Txangozaleek Euskadi bisitatzea eragiten duten bi arrazoi nagusiei dagokienez esan beharra dago bisita gehienak urteko sasoi jakin batean gertatzen direla, eta, horren eraginez, oro har atzeman den joera hori (bidaiak urteko sasoi jakin batean egitekoa alegia) sortu dela.

*Los dos motivos principales en la generación de visitas de excursionistas al País Vasco, personales y ocio/vacaciones, presentan un modelo de comportamiento estacional, siendo los que provocan la estacionalidad observada a nivel global.*

**EAE aukeratu duten txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2004 hilen arteko bilakaera**
***Excursionistas con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución mensual 2004***




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Udako hilabeteetan gertatzen da sasoiko kontzentrazio hori, abuztuan bereziki. Alabaina, bi arrazoi horiek bestelako profilak dituzte. Aisia eta oporrengatik Euskadi bisitatzen duten turista gehienak uztailean eta abuztuan iristen dira, eta alde handia dago gainerako hilabeteen aldean, urteko lehen eta azken hilabeteen aldean bereziki. Arrazoi pertsonalek, ordea, abuztuan ere gorenera iristen badira ere, maila egonkor eta altuei eusten diete, urteko lehen hiru hilabeteetan izan ezik, eta abenduan dute bigarren unerik gorena.

Lanak eta negozioek eta bestelako arrazoiek nahiko profil lauak adierazten dituzte. Lehen arrazoia urritik abendura bitarte nabarmentzen da. Bigarrena, aldiz, uda partean.

*La concentración estacional ocurre en los meses de verano, con el punto máximo en agosto. Pero ambos motivos tienen un perfil diferente. Los motivos de ocio/vacaciones registran las máximas entradas de visitantes en los meses de julio y agosto con grandes diferencias sobre el resto de meses, especialmente respecto a los primeros y últimos del año. Los motivos personales en cambio, aunque también marcan el máximo en el mes de agosto, mantienen unos niveles estables y elevados, excepto los tres primeros del año, siendo diciembre el segundo pico estacional.*

*Trabajo y negocios y otros motivos con perfil básicamente plano, con una cierta acumulación entre octubre y diciembre en los primeros, y durante el verano en los segundos.*

**EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren maiztasunaren arabera. 2001-2004 urte arteko bilakaera**
***Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita. Evolución anual 2001 - 2004***




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadirako txangozaletasuna maiztasun handiko fenomenoa dela esan daiteke, bereziki Frantziatik eta errepidez iristen delako. Txangozaleen % 40k egunero edo astero bisitatzen gaitu, eta gutxiagotan (urtean behin edo gutxiagotan) iristen direnak % 26 dira.

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, eguneko maiztasuneko txangozaleen kopurua pixkana-pixkana gora doala ikusten da. Urtebetetik gorako maiztasunekoak, berriz, kuota galtzen ari dira erritmo azkarragoan.

*Se puede decir que el excursionismo al País Vasco es un fenómeno de elevada frecuencia, consecuencia de provenir fundamentalmente del reino o país francés y por carretera. Un 40% de los excursionistas nos visitan todos los días o todas las semanas, y los que acuden con frecuencia baja, una vez al año o menos, representan un 26%.*

*En términos interanuales, se observa una tendencia muy definida de los excursionistas con frecuencia diaria a incrementar paulatinamente su participación. En el otro extremos pierden cuota (y más intensamente) los de frecuencia superior al año.*

**EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta maiztasunaren arabera 2004**
***Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita y frecuencia de la visita 2004***










***Iturria/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

**Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua 2003**
***Destino de los viajes de los excursionistas por carretera 2003***







**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




Txangozaleak bisiten arrazoiaren eta maiztasunaren arabera nola banatzen diren aztertzerakoan, Euskadiko eta Ipar Euskal Herriko ekonomien eta soziologien artean lotura handia dagoela ohartzen gara.

Euskadi egunero bisitatzen duten txangozaleen % 81ek lan-arrazoiengatik egiten du. % 71k ikasketengatik egiten du, % 51k osasun-arrazoiengatik, eta % 57k senideak eta lagunak bisitatzeko. Hainbat arrazoik bultzatuta mugitzen diren lagun horien guztien ohiko ingurunea (turismoari dagokionez behinik behin) gure Euskadik eta Frantziako lurraldeek osatzen dute. Mugarik ez dago, beraz, nabaritzen eta sentitzen ez den administrazio-marra soil bat baino ez.

Zeharkako ikuspegiari dagokionez, egunero bisitatzen gaituzten 1.430.000 txangozaleen % 35ek erosketa edo zerbitzu pertsonalengatik egiten du, % 34k lan-arrazoiengatik, % 18k aisiagatik, eta % 9k senide edo lagunenganako bisitengatik.

Asteko maiztasunaren barruan, txangozaleen % 73k erosketa eta zerbitzu pertsonalen arrazoiengatik bisitatzen du Euskadi.

Aisiaren arrazoia —txangozale gehien sorrarazten dituena, erosketa eta zerbitzu pertsonalen arrazoiaren atzetik— modu orekatuagoan banatzen da maiztasunen arabera.

*Al analizar la distribución de los excursionistas por motivo de las visitas y frecuencia de las mismas, se pone de manifiesto en que alta medida la economía y sociología del País Vasco está interpenetrada y entrelazada con las del País Vasco Francés.*

*Los excursionistas por motivos de trabajo visitan Euskadi diariamente en un 81% de los casos, un 71% los que hacen por estudios, 51% los de motivos de salud y 57% los de motivos de visita a familiares y amigos. Para todo este gran conjunto de personas, caracterizado por impulsos diferentes, su entorno habitual (en terminología estrictamente turística) es tanto nuestro País Vasco como los territorios franceses, no existe frontera, ésta es sólo una línea administrativa que no se percibe ni se siente.*

*En el punto de vista transversal, del 1.430.000 excursionistas que nos visitan todos los días, el 35% lo hacen por compras o servicios personales, el 34% por motivo de trabajo, el 18% por razones de ocio y un 9% por visitas a familiares o amigos.*

*Dentro de la frecuencia de visita semanal, un 73% de los excursionistas lo hacen por motivo de compras y servicios personales.*

*El motivo de ocio, el más importante en la producción de excursionistas después de compras y servicios personales, tiene una distribución por frecuencias mucho más igualada.*

**Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua, bisitaren arrazoiaren arabera 2004**
***Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita 2004***

























**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira errepidez etortzen diren txangozale gehienek Gipuzkoako lurraldea aukeratzen dute (guztien % 98,3k). Bizkaia jomugan dutenen ehunekoa askoz ere txikiagoa da (% 1,3), eta Gasteiz aukeratzen dutenena are txikiagoa ( % 0,3).

Txangozaletasunaren fenomenoan, bisitariak egin beharreko distantziak zeresan handia dauka. Hala, Behe Bidasoako eta Donostialdeako eskualdeek dituzte parte-hartze handienak (% 74,3 eta % 22,9, hurrenez hurren). Horien atzetik, eta Gipuzkoa barruan betiere, Urola Kostak, Tolosaldeak eta Debabarrenak ere nolabaiteko garrantzia dute, horien parte-hartzea txikia bada ere. Gipuzkoatik kanpo, Bilbo Handia da % 1eko parte-hartzea gainditzen duen eskualde bakarra.

Udalerriz udalerri, Irun da txangozaleek gehienetan aukeratzen duten udalerria (bisita guztien % 68,5), bisita horietako gehienen atzean dauden arrazoien (lana, ikasketak, erosketak eta aisia) adierazgarri. Donostiak ere parte-hartze handia du (%19,6), bai eta Hondarribiak eta Oiartzunek ere, neurri txikiagoan bada ere.

Txangozaleak udalerrien arabera nola banatzen diren aztertzerakoan, udalerri gutxi batzuetan biltzen direla ohartzen gara, bisita eragin duen arrazoia edozein izanda ere: Irun eta Donostia dira aipatu erakargune horiek, bai eta, neurri txikiagoan, Frantziako mugaren ondoko Gipuzkoako beste udalerri batzuk ere.

Ezaugarri orokor horren barruan, halere, lanaren arrazoia izan da udalerri gehienetan ageri dena. Beraz, txangozaleak ez dira muga ondoko udalerrietara murrizten, eta bertatik ongi urrundutako zenbait tokitara ere hedatzen da fenomenoa: mendebaldetik, Bilboraino, eta, barnealdetik, Gasteizeraino.

Senideak eta lagunak bisitatzearen arrazoiak ere batez bestekoaren gaineko maila ematen du sakabanatzeari dagokionez. Gainera, oro har mugatik gertuen dauden udalerriek bisita gehienak jasotzen badituzte ere, Bilbon eta Gasteizen ere eragina du arrazoi horrek.

Ikasketak direla-eta egiten diren ia bidaia guztiak Irunera, Donostiara eta Eibarrera egiten dira. Arrazoi erlijiosoengatiko bisitak Irunen eta Hondarribian biltzen dira, mugatik gertuen dauden herriak baitira, baina Azpeitiak (arrazoi horrengatik txangozaleek aukeratutako bigarren udalerria) eta Oñatik ere zeresana dute horretan. Izan ere, nazioarte mailako ospea duten santutegiak barne hartzen dituztenez, horrelako bisitari ugari jasotzen dituzte.

*La gran parte del excursionismo por carretera al País Vasco se dirige al territorio de Gipuzkoa (un 98,3 del total). A enorme distancia se encuentra Bizkaia, con una participación del 1,3% y Vitoria con un 0,3% puramente testimonial.*

*El excursionismo es un movimiento altamente influido por la distancia que el visitante tiene que recorrer. De este modo, las comarcas de Bajo Bidasoa y Donostialdea presentan las participaciones más notables, un 74,3% y un 22,9%, respectivamente. A continuación de éstas, y todavía a territorio gipuzkoano, Urola Costa, Tolosaldea y Bajo Deba tienen alguna significación dentro de su reducida participación. Fuera de Gipuzkoa, Gran Bilbao es la única comarca con participación superior al 1%.*

*Por municipios, Irún es el mayormente acudido por los excursionistas, suponiendo un 68,5% del total, y fiel expresamente de las motivaciones de trabajo, estudios, compras y ocio que producen la inmensa mayoría de estas visitas. Notoriamente representada está Donostia (un 19,6%), y en menor medida Hondarribia y Oiartzun.*

*La distribución de excursionistas por los diferentes municipios se encuentra bastante concentrada en un puñado de ellos, independientemente de la razón que ha motivado la visita: Irún y Donostia y, en menor medida, otros municipios gipuzkoanos cercanos a la frontera en Francia, son los centros atractores más señalados.*

*Dentro de esta característica general, el motivo trabajo es, no obstante, el que presenta un mayor número de municipios representados. No se limita, pues, a los más cercanos a la frontera, sino que, en este caso el excursionismo se difunde por puntos bien alejados de la misma, hasta Bilbao por el Oeste, e, incluso, alcanzado Vitoria.*

*También los motivos de visita a familiares y amigos originan un grado de dispersión superior a la media. Y aunque, como nota dominante, los municipios más cercanos a la frontera reciben la afluencia principal, está también representado en Bilbao y Vitoria.*

*El motivo de estudios está prácticamente reducido a desplazamientos a Irún, Donostia y Eibar. Las visitas por motivos religiosos se concentran en Irún y Hondarribia, como localidades más fronterizas, pero también Azpeitia (segundo municipio de destino por estos motivos) y Oñate, con santuarios conocidos a nivel internacional, disfrutan de este tipo de visitantes.*



**Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek EAEn aukeratutako lekua, bisitaren maiztasunaren arabera 2004**
***Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita 2004***






















**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Erosketen arrazoia dela-eta egiten diren ia txango guztiek Irun dute jomugan (% 90,4), eta, neurri txikiagoan, Donostia (% 6,9). Muga ondoko bi udalerrik (Oiartzun eta Hondarribia) ere zenbait bisita erakartzen dituzte arrazoi horrengatik.

Osasun-arrazoiengatik bidaiatzen duten ia bisitari guztiak Gipuzkoan biltzen dira. Gehienek Donostiara eta Irunera jotzen dute (% 50 eta % 36, hurrenez hurren).

Aisiagatik bidaiatzen duten txangozaleak ere nahiko sakabanatuta daude. Donostian eta Irunen (antzeko neurrian) biltzen dira bisita gehien (bisita guztien % 79, guztira). Jarrian, Hondarribia dator, eta horren tamaina ere kontuan hartzekoa da (% 13,2). Gainerakoak Gipuzkoako kostaldetik eta barnealdetik banatzen dira. Gipuzkoatik kanpo, Bilbok erakartzen ditu txangozale gehien, eskaintza turistiko dibertsifikatua eskaintzen duelako.

Txangozale gehienen bisitak Frantziako mugaren ondoko eremuetan biltzen dira. Hiru udalerrik (Irun, Donostia eta Hondarribia) berenganatzen dute bisitaldi guztien oso ehuneko handi bat: horrelako bidaiarien % 90etik gora, hain zuzen. Bisiten maiztasunari dagokionez, eguneko bisitariak % 89,9 dira. Iraupen luzeagoko bisitariak, aldiz, % 95. Asteko, hileko, hiruhileko eta urteko maiztasunei dagokienez, % 95etik gorako balioa ematen dute.

Maiztasun-segmentu guztietan Irun da udalerririk bisitatuena. Alabaina, bisitamaiztasuna txikitu ahala, Donostiak polikipoliki hartzen du haren tokia. Hain zuzen ere, hiriburuaren parte-hartzea % 12 da eguneko fluxuetan, % 29 urteko fluxuetan, eta % 39 goragoko maiztasun-fluxuetan.

Hiru udalerri horietatik kanpo, Oiartzun da maiztasun handieneko tarteetan nolabaiteko presentzia duen udalerri bakarra (% 2,8 eguneko maiztasunean eta % 1,7 hilekoan).

Bilbok ere kontuan hartzeko presentzia dauka, baina maiztasun txikieneko fluxuetan soilik: % 1,3 hiruhilekoan eta % 2,8 urtekoan.

Ondorioz, eta bisitaren arrazoiaren arabera egindako azterketarekin bat etorriz, Euskadirako txangozaletasuna distantziako fenomenoa da, aldagai hori bidaiaren arrazoiari nagusitzen baitzaio. Horrenbestez, txangozale ia guztiak mugatik gertueneko eskualdeetan biltzen dira, eta gainerako eskualdeek oso bisita gutxi jasotzen dituzte.

*El motivo compras está fuertemente localizado en Irún (90,4%) y en menor medida en Donostia (6,9%). Otras localidades próximas a la frontera (Oiartzun y Hondarribia) tienen ligera representación.*

*La zona gipuzkoana es también en la práctica la única que cuenta con visitantes por motivos de salud, destacando Donostia e Irún, con un 50% y un 36%, respectivamente.*

*El motivo de ocio también goza de una saludable dispersión de los excursionistas. Donostia e Irún, en niveles muy parejos, presentando la mayor concentración (un 79% en conjunto), seguidos de Hondarribia, con un volumen todavía significativo del 13,2%. El resto se distribuye por la costa e interior de Gipuzkoa. Y fuera de ella, la mejor representación la alcanza Bilbao, gracias a su diversificada oferta turística.*

*La mayor parte del flujo de excursionistas se concentra en las zonas más próximas a la frontera francesa. Y hay tres municipios que captan un porcentaje muy sustancial del total: Irún, Donostia y Hondarribia acogen por encima del 90% de la afluencia de estos viajeros. En relación con la frecuencia de visitas, este porcentaje se mueve desde el 89,9% para los visitantes diarios hasta un 97% para los de más larga duración, presentando un valor típico superior al 95% en las frecuencias semanales, mensuales, trimestrales y anuales.*

*Irún se mantiene en todos los segmentos de frecuencia como el municipio más visitado, sin embargo, a medida que la frecuencia de visita disminuye, se ve progresivamente sustituido por Donostia. Esta capital pasa de una participación del 12% en los flujos diarios al 29% en los anuales y 39% en la de frecuencia superior.*

*Fuera de estos tres municipios, sólo Oiartzun presenta una participación con alguna significación en los tramos de mayor frecuencia (2,8% en la diaria y 1,7% en la mensual).*

*Bilbao adquiere alguna participación representativa únicamente en los flujos de frecuencia más baja: 1,3% en la trimestral y un 2,8% en la anual.*

*En conclusión, y refrendando el análisis realizado por motivos de la visita, el excursionismo al País Vasco es un fenómeno de distancia, variable predominante frente a la motivación del viaje, que produce una elevadísima concentración en las comarcas más fronterizas, dejando al resto una representación puramente testimonial.*

# KLIK BAT EGIN ETA TURISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA IZANGO DUZU

# INFORMACIÓN DEL TURISMO AL ALCANCE DE UN CLICK



**www.euskadi.net/turismo**

Euskal TURISMOAREN SEKTORERA zuzendutako WEB PROFESIONALA

- Azterlanak eta Estatistikak
- Dirulaguntzak
- Prozedura Administratiboak
- Kalitatea Sektorean
- Bekak, formazioa eta enplegua
- Seinaleztapen gidaliburua
- Turismoaren Legeria
- Argitalpenak

La WEB PROFESIONAL para el SECTOR TURÍSTICO vasco

- Estudios y Estadísticas
- Ayudas y Subvenciones
- Procedimientos Administrativos
- Calidad en el sector
- Becas, formación y empleo
- Manual de Señalización turística
- Legislación
- Publicaciones

**www.euskadituri smoa.net**
**www.paisvascoturismo.net**

GURE BIDAIARIENGANA zuzendutako TURISMOKO WEB gunea

- Ostatuak
- Mapak
- Garraioa
- Aisialdia
- Gastronomia
- Kultura
- Bidezidorrak
- Biltzarrak eta Azokak
- Kirolak eta natura

La WEB TURÍSTICA para NUESTROS VIAJEROS

- Alojamientos
- Mapas
- Transportes
- Ocio
- Gastronomía
- Cultura
- Rutas
- Congresos y Ferias
- Deportes y Naturaleza

Atsegin handiz
Euskadi
PAIS VASCO
Con mucho gusto

Lanketa / Elaboración: ARALDI
Fotokonposaketa / Fotocomposición: Mediaprint
Inprimaketa / Impresión: mccgraphics (Planta Elkar)

ISSN: 1699-342X
Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-1167/2000

Argibide gehiago behar izanez gero:
Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo I Euskal turismoaren estatistika orokorrak
www.iet.tourspain.es

Para más información:
Teléfono de contacto: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo I Euskal turismoaren estatistika orokorrak
www.iet.tourspain.es

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz